

ERRIMO-SHEMEA-RI

¡Erriko-šeme berdin gabia
urte bete da ill-zala,
oraindik gure goguan dago
erritar arren itzala!
nere otoitzak len ikasiyak
oso gaztia nintzala,
eskeintzen ditut Zeruetara...
¡¡Jaunak beragan ditzala!!

JOSÉ ARTOLA

¡LO, TA LO!

Oroitzen gera nola zinduzen
asto ipuyak kontatzen,
ta nola ziñan zartu ta gero
gazte antzera jostatzen;
ta gaur ¿non zaude orren isillik?
¿Gaur?
Lo, ta lo, mutu kantatzen,
eta gañera aingeru talde
ederrarekiñ dantzatzen.

JUAN IGNACIO URANGA

¡URTE BETE!

Izan arren urtia
zu juana mundutik,
etzait penarik kendu
neri biyotzetik.

ROSARIO ARTOLA

MALKO BAT

Ala eskeintzen dizut. Zu jua ezkeru aitu ziran far-irriyak. Zu ziñan alaitzen gindubena. Orain malkua bezterik ez daukagu. Artzazu bat, alare naikua gelditzen zaizkigu ta.

TORIBIO ALZAGA